

Prensa oharra

Elkartasun Zentimoak programaren elkartasun kausa berria

EROSKI ETA HAREN BEZEROAK, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEEI ETA ADINGABEEI LAGUNTZEN

- Ana Bella fundazioaren eta Soledad Cazorla Diru Funttsaren alde dihardu, genero indarkeriaren biktima izan diren emakume eta adingabe horiei laguntzeko
- *Elkartasun Zentimoak* EROSKIren urteroko programa bat da, bezeroek dohaintzak egin ditzaketena hautaturiko gizarteko zenbait kausaren alde; kausa horiek hautatzeko, aintzat hatzen da 3.500 bazkide-bezero baino gehiagoren iritzia

Elorrio, 2021eko martxoaren 8a.- [EROSKI](#) beste elkartasun kausa batean ari da bere *Elkartasun Zentimoak* izeneko programaren barnean genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeei eta adingabeei laguntzeko [Ana Bella](#) fundazioarekin eta [Soledad Cazorla Diru Funttsarekin](#) elkarlanean. Kanpaina hau, gaur hasi dena, Emakumearen Nazioarteko egunean, martxoaren 24ra arte egongo da indarrean. EROSKIk eta haren bezeroek bildutakoa bi entitate horiek indartzeko erabiliko da; hala, genero indarkeriaren biktima izan diren 382 emakume eta adingaberi ematen dieten laguntza eta aholkularitza indartu ahalko du.

"Gizon-emakumeen arteko desberdintasun erakustaldirik larrienak dira genero indarkeria eta feminizidioa. Espainian, 2003tik gutxienez 1.079 emakume hil dira, eta 2013tik 304 haur gelditu dira gurasorik gabe kausa horregatik. Tratu txarrak jasotzen dituen bost emakumetik bat, 1.500.000 emakume baino gehiago, ikusezinak dira, isildu egiten direlako. Biktimen seme-alabak giro makurrean bizi dira, eta tratu txarren lekuko dira, zuzenean ez bada zeharka pairatzen baitituzte. Eta Covid-19ak beste zailtasun langa bat ezartzen du horrelako egoeretan. Hori dela eta, gure bezeroekin batera, lagundu egin nahi diegu Ana Bella fundazioari eta Soledad Cazorla Diru Funttsari, elkarrekin ahalik eta emakume eta adingabe gehienengana iristeko eta biktima horiek behar duten babes guztia emateko", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Ana Bella fundazioa eta Soledad Cazorla Diru Funtza bi erakunde dira, irabazi asmorik ez dutenak eta laguntza emozionala ematen dutenak. Bizirik atera diren emakumeekin jarduten dira, haiek ahalduz lan duinaren bitartez eta lagun egiten gurasorik gabe gelditu direnen hezkuntza garapenean.

"Bizirik atera diren emakume sare honetan, enpatiaren, maitasunaren eta sororitatearen bitartez, ikusezinak diren biktimak detektatzen ditugu, eta konfiantza sorrarazten dugu isiltasuna urra dezaten. Baliabide publikoetara iristen laguntzen diegu, eta azkenik, lagun egiten diegu beren ahalduz pertsonalaren prozesuan, indarkeria modu positiboan gaindi dezaten, eta ez bizirik atera diren biktima gisa. EROSKIren moduko erakundeekin laguntzarekin, jarrai dezakegu behar gaituzten guztiei laguntzeko lanean", esan du Ana Bellak, Ana Bella fundazioaren bultzatzaileak.

"Eskerrak eman nahi dizkiogu EROSKIri emandako babesagatik; horri esker, biktimei eta familiei eskaintzen diegun laguntza eman ahal dugu eta. Genero indarkeriagatik norbait hiltzen dutenean, biktimaren seme-alabak ikusezintasunean eta ahaztuta gelditzen dira maiz, eta horrela zailagoa da administrazio publikoak babestea eta kalteengatik erreparazioa ematea. Umezurtzak eta haien familiak babesik gabe gelditzen dira, nolako pausoak eman behar dituzten jakin gabe eta aholkurik jaso gabe, baita dolurako espaziorik gabe ere", azaldu du Marisa Soletok, Emakumeen Fundazioko zuzendariak eta Soledad Cazorla Diru Funtzaren Idazkaritza Teknikoko arduradunak

Elkartasun Zentimoak, kausa sozial askotarikoei laguntzeko

EROSKIek Elkartasun Zentimoak programa iraunkorra estreinatu zuen azaroaren 5ean. Orain arte, askotariko proiektuetan erakutsi du elkartasuna; besteak beste: Elikagaien Bankuei lagundu die elikagaiak emanez familia zaurgarrientzat; UNICEFekin, Mugarik Gabeko Medikuekin eta ACNURekin ere jardun da garapen bidean diren herrialdeetako haurrak txertatzen laguntzeko; eta Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioari lagundu dio haur minbiziaren borrokan.

EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongintzako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen duten aldiro. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

Lagundutako erakundeak aldian behin aldatu egiten dira, gizartean aldi bakoitzean nolako beharrak dauden eta 3.500 bazkide-bezerok baino gehiagok nolako kezak

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

helarazten dituzten. 2021ean, erakunde hauek egongo dira lagundu beharrekoen zerrendan: haurren alde ari direnak, bazterketa arriskuan direnei laguntzen dihardutenak, minbizia borrokatzen dutenak, desgaitasunak dituztenei laguntzen dietenak, gaixotasun arraroen aurka dihardutenak eta ingurumenaren alde dihardutenak.

"Elkartasun Zentimoak izeneko programa tresna eraginkorra da gure bezeroek modu errazean bidera dezaketelako bere konpromisoa gizarteko kausa askotarikoen alde. Programa iraunkor bat da, eta haren bitartez alor askotako erakundeei lagunduko diegu, betiere norabide jakin batean: gehien behar dutenei laguntzea", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean. 2020an, EROSKI 9 milioi euro baino gehiago eman dizkie janaritan, lehen mailako produktutan, eta ekarpen ekonomikotan askotariko gizarte erakundeei, COVID-19ak eragindako gizarte krisiak markatutako urte honetan.

Ana Bella fundazioari buruz

Ana Bella fundazioaren xedea da gizarte berdinzale bat eraikitzea emakumeenganako indarkeriatik libre. Biktimei eta haien seme-alabei babesa ematen diete, isiltasuna urratu eta berriz ere zoriontsuak izan daitezen; bizirik atera direnei, berriz, aldaketaren eragile gisa duten ahala erakusten diete; eta oro har irtenbide eraginkorrak sorrarazten dituzte enpresekin eta komunikabideekin batera.

Soledad Cazorla Diru Funtsari buruz

Soledad Cazorla Diru Funtsaren helburua da genero indarkeriatatik umezurtz gelditu direnen garapen pertsonalean eta hezkuntzan laguntzea, baita lagun egitea ere krimena gertatu eta ondorengo prozesu guztian.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)